

INFORMAZIO OHARRA

Mugaz gaindiko `Gazte Agora´ ekimenaren lehen foroetako ondorioak aurkeztu dira

- *Donostia, Iruñea eta Baionan ospatutako foroen emaitzak aurkeztu dira gaur goizean Irungo Ficoban.*
- *Eusko Ikaskuntza, Euskadiko Gazte Kontseilua (EGK) eta Nafarroako Gazte Kontseilua (CJN-NGK) dira ekimen honen antolatzaileak eta EAE, Nafarroa eta Iparraldeko gazte norbanako, eragile eta erakundeen arteko elkarlana sustatzea dute helburu*

Irun, 2021eko urtarrilak 13. Gaur goizean Gazte Agora proiektuaren konklusio nagusiak aurkeztu dira hedabideen aurrean, pasa den urtean eta 2019an EAE, Nafarroa eta Iparraldeko hainbat gazterekin egindako topaketen ondoren lortu diren emaitzak aurkeztuz. Proiektuaren helburua hiru lurraldeetako gazte norbanako, eragile eta erakundeen arteko elkarlana sustatzen da.

Eusko Ikaskuntzak, Nafarroako Gazte Kontseiluak (CJN-NGK) eta Euskadiko Gazte Kontseiluak (EGK) antolatutako foro hauek gazteen kezka eta erronka nagusiak herrialdez herrialde identifikatzea ahalbidetu dute eta elkarlanerako oinarriak finkatu dira. Donostian, Iruñean eta Baionan ospatutako topaketa hauetatik ondorio desberdinak atera dira eta lau multzotan banatu dira: ongizate materiala, euskara eta hizkuntza-politikak, hezkuntza formala eta ez-formala eta gobernantza.

Maialen Olabek, EGK-ko presidentek, eman dio hasiera aurkezpenari ongizate materialari buruz hitz egiten: "Euroeskualdeko gazteek zailtasun handiak dituzte bizi-proiektuak garatu ahal izateko. Ezinbestekoa da kalitatezko enplegua lortzea etxebizitza duin baterako sarbidea izateko. Bide horretan, uste dugu mugaz gaindiko elkargune sozioekonomikoak lortzea mesedegarria izan daitekeela". Gainera, hezkuntzaren inguruan, komuneko esparruak sortzearen eta euskara bultzatzearen beharrak azpimarratu ditu.

Jarraian, Xalbat Alzugarayk, Eusko Ikaskuntzako gaztea, Euskal Herriko hizkuntza-politikaren egoera azaldu du. Euskararen garrantzia nabarmendu du, Euskal Herriko lurralde desberdinetako gazteak biltzeko komuneko tresna izanik: "Euskara gure altxor komuna da, partekatzen eta deseatzten dugun tresna komunikatiboaz gain. Horregatik, bere erabilera bultzatzea ezinbestekoa da, beti ere gure

aniztasuna mantenduz”.

Bestalde, Juan Gutiérrezek Nafarroako Gazteriaren Kontseiluko Presidenteak gobernantzako blokea aurkeztu du: “Euroeskualdeko lurraldeen komuneko erronka gazteria ahalduntzea eta bere partaidetza eta bizi-proiektua garatzeko errekurtsoak izatea da. Horretarako, ezinbesteko tresna bezala identifikatzen dira baliabideen sustapena eta hornitzea eta parte hartzea oinarri duen heziketa, baita gazte erakundeen arteko elkarlana sortzea, eragina izateko eta erabakiak hartzeko gaitasuna lortzeko, Gazte Kontseiluen eruedetan bezala”.

Eusko Ikaskuntzatik adierazi dutenez “proiektu honetan ezinbestekoa izan da Udako Euskal Unibertsitatearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euroeskualdearen babesa”. “Eskerrak eman nahi dizkiegu proiektu hau posible egin duten eragileei” amaitu dute.

Hurrengo pausuak

Gazte Agorak martxan jarraitzen du eta horregatik datorren urtarrilaren 25etik aurrera espazio bat ahalbidetuko da Eusko Ikaskuntzako webgunean (www.eusko-ikaskuntza.eus) lau atal hauei buruzko praktika onen proposamenak jasotzeko. Asmoa proiektuari jarraipena ematea da eta beste mugaz gaindiko foro bat ospatu ahal izatea udaberrian, pasa den urtean aurreikusita zegoen bezala pandemia heldu aurretik.

Informazio guztia eta etorkizuneko datei buruzko berriak proiektuaren hiru antolatzaileen webguneen eta sareen bitartez eguneratuko dira.

“Gazteen aniztasuna eta gobernantza-eredu berriak: mugaz gaindiko gazte-lankidetzarako oinarriak finkatzen” [emaitzen-txostena](#) atxikitzen da.

NOTA INFORMATIVA

El foro juvenil transfronterizo ‘Gazte Agora’ presenta las conclusiones de sus primeros foros

- *Esta mañana ha tenido lugar en Ficoba (Irun) la presentación de los resultados de los foros celebrados en Donostia, Pamplona y Baiona.*
- *Eusko Ikaskuntza, Euskadiko Gazte Kontseilua (EGK) y el Consejo de la Juventud de Navarra (CJN-NGK) son los impulsores de este proyecto que, entre otros, busca promover la colaboración entre jóvenes agentes e instituciones de la CAV, Navarra e Iparralde.*

Irun, 13 de enero de 2021. Esta mañana ha tenido lugar la presentación ante los medios de las principales conclusiones del proyecto ‘Gazte Agora’ recogidas en los diferentes foros celebrados entre el pasado año y 2019 en los que han participado multitud de jóvenes de la CAV, Navarra e Iparralde. Cabe recordar que el objetivo principal con el que nació este proyecto es el de impulsar la colaboración entre jóvenes, agentes e instituciones de los diferentes territorios.

La iniciativa motivada por **Eusko Ikaskuntza** y los **Consejos de la Juventud de Euskadi (EGK) y Navarra (CJN-NGK)**, ha permitido identificar las principales preocupaciones y los retos comunes de la juventud de los tres territorios así como asentar las bases de colaboración. De los encuentros celebrados en Donostia, Pamplona y Baiona han salido diferentes conclusiones que se agrupan en cuatro grandes bloques: **bienestar material, euskera y políticas lingüísticas, educación formal y no formal y gobernanza.**

La presidenta de EGK, **Maialen Olabe**, ha dado comienzo a la exposición hablando sobre Bienestar Material: “Las personas jóvenes de los territorios de la Euroregión ven con dificultad el desarrollo de su proyecto de vida. Es necesario lograr un trabajo de calidad que nos ayude a tener acceso a una vivienda digna. Para ello, consideramos que lograr puntos de encuentro socioeconómicos transfronterizos puede ser de ayuda en ese camino”. Además, en lo referente a la educación, ha destacado la necesidad de construir acuerdos comunes entre los tres territorios y de aumentar la presencia del euskera.

A continuación, **Xalbat Alzugaray**, joven de Eusko Ikaskuntza, ha explicado la situación de la política lingüística en el País Vasco.

Asimismo, ha subrayado la importancia del euskera como eje principal de este espacio común, en el que los jóvenes y las jóvenes del País Vasco se han reunido: “El euskera es nuestra riqueza común, además del elemento principal de comunicación que compartimos y deseamos, por ello, impulsar su uso y aumentar su visibilidad, manteniendo la diversidad que nos caracteriza.”

Por su parte, el presidente del Consejo de la Juventud, **Juan Gutiérrez**, ha sido el encargado de presentar el apartado de Gobernanza: “El principal reto común de los territorios de la Euroregión es conseguir una juventud empoderada y con recursos que garanticen su participación y el desarrollo de su proyecto vital. Para ello se identifican como herramientas clave el impulso y la dotación de recursos y la educación en participación, así como la creación de alianzas entre organizaciones juveniles para conseguir que tengan capacidad de influencia y capacidad de decisión, con modelos como los de los Consejos de la Juventud”.

Por último, desde Eusko Ikaskuntza han recordado que “en este proyecto también ha sido imprescindible el apoyo de la Universidad Vasca de Verano, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Gobierno Vasco y la Euroregión”. Por ello, muestran su “más sincero agradecimiento a todos los y las agentes que han estado haciendo posible el proyecto”.

Próximos pasos

‘Gazte Agora’ sigue en marcha y por ello, el próximo día 25 de enero se habilitará un espacio en la web de Eusko Ikaskuntza (www.eusko-ikaskuntza.eus) para recoger propuestas de buenas prácticas en torno a estos cuatro grandes bloques. La idea es dar continuidad al proyecto y que de cara a primavera se pueda celebrar un foro transfronterizo tal y como estaba previsto el año pasado y que tuvo que ser suspendido debido a la pandemia.

Toda la información y el detallado de las próximas citas se irá actualizando a través de las redes sociales y páginas webs de las tres entidades que impulsan el proyecto.

Se adjunta el **informe** de resultados “Diversidad juvenil y nuevos modelos de gobernanza: Bases para la cooperación juvenil transfronteriza”.